

# HITZEKIN

IRAKASLEAREN ORRIAK (B1)

*æk*  
22.korrika

# HITZEKIN

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

## HELBURUAK

Sekuentzia didaktiko hau KORRIKA hurbil dugula egiteko pentsatuta dago, eta helburu nagusia du ikasleak KORRIKAn parte-hartzen animatzea (norberaren herritik pasatzen denean korrika eginez, KORRIKA laguntzaile bilakatuz...). Horrez gain, mailari dagozkion eduki batzuk ere landuko ditugu.

## OHAR GARRANTZITSUA

Ikasmaterial honek euskarri nagusi bi ditu: "KORRIKA, historikoa!" jokia eta "HitzEkin" aldizkaria.

- **"KORRIKA, historikoa!" Euskal Herri mailan egingo den joko digitala da.** Jokoa, bideo batzuen laguntzaz, KORRIKAn historia apur bat hobeto ezagutu ahal izango dute ikasleek, hamarkadaz hamarkada; ondoren, telefono edo ordenagailu eramangarrien bidez, galdera batzuei erantzun beharko diete. Jokoa ikasgelan egingo den arren, puntuazioaren jarraipena euskaltegi eta Euskal Herri mailan egingo da, eta sariak ere banatuko dira.
- **"HitzEkin" aldizkarian, KORRIKari buruzko informazioa zabalduko da,** tartean jokoa planteatuko diren galderari erantzun ahal izateko hainbat datu. Aldizkaria erabilita, ikas-jarduera batzuk egingo dira, eskoletan.

Sekuentzia honi ahalik eta atarramenturik handiena ateratzeko, komenigarria da jarduerak prozeduran azaldutako hurrenkeran egitea, bai eta "KORRIKA, historikoa!" jokia euskaltegi mailan (eta, ahal dela, Euskal Herri mailan ere) aldi berean egitea ere.

Jarduera honetako ariketak online bideratu nahi badituzu, egin klik lotura honetan: [HitzEkin B1](#).

## PROZEDURA


### 1. EZAGUT DEZAGUN KORRIKA

Jarduera honetan, "HitzEkin" aldizkariaren laguntzaz, KORRIKari buruzko informazio interesgarria gogoraraziko diegu ikasleei: historia apur bat, aurtengo KORRIKari buruzko datuak... Horrekin batera, KORRIKA laguntzaile izaten animatuko ditugu.


#### 1.1. KORRIKAn aditua zara?

- "KORRIKAn aditua zara? GALDERAK" ikus-entzunezkoa ikusi bitartean, ikasleek, bakarka, planteatzen diren galderen erantzunak markatuko dituzte, X idatzita dagozkion laukietan (4.-5. or.).
- Erantzun zuzenak eskaini aurretik, "HitzEkin" aldizkariak eta KORRIKAn ibilbidea (12. or.) banatuko dizkiegu ikasleei, eta hamar bat minutu emango dizkiegu azaleko irakurketa eginda gogoratzen dituzten galderen erantzunak bertan bilatzeko.
- Denbora amaitutakoan, "KORRIKAn aditua zara? GALDERAK" ikusiko dugu berriro, eta ikasleek aurretik emandako erantzunak berretsi edo zuzenduko dituzte. Erantzunen bat aldatu nahi izanez gero, lehenengoa ezabatu eta berria markatuko dute, azken horren inguruan biribil bat margotuta, ondoko adibidean bezala:

#### LEHENENGO SAIAKERAN:



#### BIGARREN SAIAKERAN:



- Amaitzeko, erantzun zuzenak eskainiko dizkiegu. Horretarako, "KORRIKAn aditua zara? ERANTZUNAK" ikus-entzunezkoa erabili ahal izango dugu.

### 1.2. "... eta KORRIKA izan zen."

- Ikasleek, bakarka, "... eta KORRIKA izan zen" irakurriko dute ("HitzEkin" aldizkarian, 2.-3. or.).
- Aldizkarian irakurritakoa labur komentatuko dugu, talde handian: irakurritakoa ezagutzen genuen, ezerk arreta eman digun...
- Amaitzeko, ikasleek "Kohesio elementuak" ariketa egingo dute, bakarka (6. or.). Ariketa egin bitartean, aldizkariak itxita izan beharko dituzte.

### 1.3. KORRIKako istorio bitxiak

- Atal honetan, hiru istorio bitxiren berri jasoko dute ikasleek: bakoitzak istorio bat irakurriko du, eta, hiruna jarrita, irakurritakoa elkarri kontatuko diote (7.-9. or.).
- Behin istorio guztien berri jasota, asmatu beharko dute zein den gezurrezkoa. Izan ere, istorio bat ezinezkoa da (horrela esango diegu ikasleei), eta inkongruentzia ezkutua bilatu beharko dute ikasleek, hironaka.
- Hipotesiak talde handian aleratu ditugu.

#### ERANTZUNA:

Gezurrezko istorioa ordu-aldaketari buruzkoa da. Egia da, kontaketan esaten den bezala, 1983ko martxoaren 29ko gauean, data horietan ohi bezala, erlojuak ordubete aurreratu behar izan zirela: goizaldeko ordu bietan, hirurak jarrita; baina furgonetako kopilotua horretaz ohartu izan ez balitz, KORRIKA ordubete atzeratuta zihoala pentsatuko zukeen, ez kontrakoa.

### 1.4. Izan zaitez KORRIKA laguntzaile.

- Ikasleek, bakarka, "Inazioren lekukotasuna" irakurriko dute ("HitzEkin" aldizkarian, 8. or.). Irakurri ondoren, "Eta KORRIKA laguntzaile izango ez banitz?" ariketa egingo dute (10. or.).
- Ariketa zuzendu ondoren, KORRIKA laguntzaile zer den azalduko diegu ikasleei, aldizkariaren orri bereko informazioa erabilita, eta KORRIKA laguntzaile izatera animatzen ahaleginduko gara.

### 1.5. "KORRIKA, historikoa"! jokoaren aurkezpena

- Ikasleei "KORRIKA, historikoa! jokoa" aurkeztuko diegu: nolakoa den, noiz egingo den, nolako sariak egongo diren... Horrekin batera, jokoa hasi aurretik "HitzEkin" aldizkaritxoa arretaz irakurtzen animatuko ditugu, bertan jokorako informazio ugari dagoela esanda.

## 2. "KORRIKA, HISTORIKOA!" JOKOA

Jolas digital horren bitartez, KORRIKAREN inguruan sakondu nahi dugu, modu ludikoan, mugikorrek edo ordenagailu eramangarriak erabiliz. Jokoa ikasgelaz ikasgela egingo dugun arren, puntuazioaren jarraipena euskaltegi eta Euskal Herri mailan egingo da, eta sariak ere egongo dira.

- Joko digitala proposatzen dugun arren (*Kahoot* bidez), bestela egiteko aukera ere eskaintzen dugu, *Kahoot* erabiltzeko arazoak sortzen badira ere. Baterara edo bestera jokatzeko jarraibideak eta baliabideak "KORRIKA, historikoa! jokoa" dokumentuan daude.

## KORRIKAN ADITUA ZARA?

## ERANTZUNAK JASOTZEKO FITXA

Irakurri arretaz bideoaren galderak eta erantzunak, eta aukeratu erantzun zuzena. Bi aukera izango dituzu galderen erantzunak asmatzeko. Lehenengo saiakeran, idatz ezazu X bana aukeratutako erantzunak markatzeko; bigarren saiakeran erantzunen bat aldatu nahi baduzu, ezabatu aurrekoa, idatzi X bat erantzun berriaren ondoan, eta margotu biribil bat X horren inguruan.

## 1. GALDERA

 A.....

 B.....

 C.....

 D.....

## 2. GALDERA

 A.....

 B.....

 C.....

 D.....

## 3. GALDERA

 A.....

 B.....

 C.....

 D.....

## 4. GALDERA

 Egia

 Gezurra

## 5. GALDERA

 A.....

 B.....

 C.....

 D.....

## 6. GALDERA

 Egia

 Gezurra

## 7. GALDERA

 Egia

 Gezurra

## 8. GALDERA

 Egia

 Gezurra

## 9. GALDERA

 Egia

 Gezurra

## 10. GALDERA





 A.....

 B.....





 C.....

 D.....





11. GALDERA

 A..... <input type="checkbox"/>	 B..... <input type="checkbox"/>
 C..... <input type="checkbox"/>	 D..... <input type="checkbox"/>





12. GALDERA

 A..... <input type="checkbox"/>	 B..... <input type="checkbox"/>
 C..... <input type="checkbox"/>	 D..... <input type="checkbox"/>





13. GALDERA

 A..... <input type="checkbox"/>	 B..... <input type="checkbox"/>
 C..... <input type="checkbox"/>	 D..... <input type="checkbox"/>





14. GALDERA

 A..... <input type="checkbox"/>	 B..... <input type="checkbox"/>
 C..... <input type="checkbox"/>	 D..... <input type="checkbox"/>





15. GALDERA

 A..... <input type="checkbox"/>	 B..... <input type="checkbox"/>
 C..... <input type="checkbox"/>	 D..... <input type="checkbox"/>





16. GALDERA

 A..... <input type="checkbox"/>	 B..... <input type="checkbox"/>
 C..... <input type="checkbox"/>	 D..... <input type="checkbox"/>





17. GALDERA

 A..... <input type="checkbox"/>	 B..... <input type="checkbox"/>
 C..... <input type="checkbox"/>	 D..... <input type="checkbox"/>





18. GALDERA

 A..... <input type="checkbox"/>	 B..... <input type="checkbox"/>
 C..... <input type="checkbox"/>	 D..... <input type="checkbox"/>

19. GALDERA

 A..... <input type="checkbox"/>	 B..... <input type="checkbox"/>
 C..... <input type="checkbox"/>	 D..... <input type="checkbox"/>

20. GALDERA

 A..... <input type="checkbox"/>	 B..... <input type="checkbox"/>
 C..... <input type="checkbox"/>	 D..... <input type="checkbox"/>

**KOHESIO-ELEMENTUAK**

Ondoko esaldiak "... eta KORRIKA izan zen" testutik atera ditugu, baina kohesio-elementuak kendu dizkiogu. Jarriko dizkiozu berriro, aldizkariari begiratu gabe?

Urte batzuk lehenago, 1977an, lehenengo kilometroak antolatu zen Beasainen, Gipuzkoako ikastolen aldeko ekimen handia; ez da zaila imajinatzea, \_\_\_\_\_ (1), afalondoko tertulian ekimen hari buruz hitz egingo zutela.


... eta ez da zaila imajinatzea afaltiarren bat, oinak lurretik hurbilen zituena, \_\_\_\_\_ (2), "Hori ezinezkoa da, lagunak!" esaten

... baten batek "Ezetz antolatu!" hitz magikoak esan arte. Hortik aurrerakoa ere ez da zaila imajinatzea; \_\_\_\_\_ (3), zerbait egitea nahi baduzu, horixe da modurik onena: esan euskaldun bati "Ezetz egin!", eta helburua lortuko duzu. Hutsezina da!

Hasierako edizioetan, Euskal Herriko alderdi politiko batzuek KORRIKARI boikot egitea eskatu zuten; \_\_\_\_\_ (4), boikotaren gaineratik, KORRIKA egin zen, arrakasta handiz \_\_\_\_\_ (5). Edizio batzuetan, debeku-mehatxuak egon dira: bigarren KORRIKAN, \_\_\_\_\_ (6), Nafarroako gobernadore zibilak herrialdean ibiltzea debekatu zion lasterketari...

Hogeita bigarren edizioa 2021eko udaberrian antolatu nahi zuen AEK-k. Baina urtebete lehenago Wuhan urrunean sortutako birus batek, mundu osoa hankaz gora jarri zuen batek —COVID 19ak, \_\_\_\_\_ (7)— ekimena bertan behera uztera behartu zuen.

\_\_\_\_\_ (8), urteetan boikot, mehatxu, elurte, uholde eta abarrek ez dute lortu KORRIKA geraraztea; beraz, nekez lortuko du zomorrotxo batek. \_\_\_\_\_ (9), egun gutxi barru KORRIKA egingo da, berriro ere, eta Euskal Herri osoa euskararen aldeko zoro zoragarritz beteko du.

**HALA****HAIN ZUZEN****HALA ERE****BERAZ****GAINERA****ESATERAKO****ZIURRENEZ****BAINA****IZAN ERE**



## KORRIKAKO ISTORIO BITXIAK

KORRIKAn istorio bitxi asko gertatu dira, edizio hauetan guztietan. Ondoren, haien berri jasoko dugu: benetan gertatutako bi eta gezurrezko bat. Irakurri zuri dagokizuna, kontatu ikaskideei eta entzun haiek kontatuko dizutena; gero, saia zaitez gezurrezkoa zein den asmatzen. Gogoan izan faltsua identifikatzeko ez dela beharrezkoa KORRIKA oso ondo ezagutzea; nahikoa da berriak arretaz irakurtzea edo entzutea.

## 1. ISTORIOA

### Behi eroak eta KORRIKA

2001eko udaberrian, 12. KORRIKA Gasteiztik atera zenean, "behi **eroen**<sup>1</sup> gaitza" zebilen Europa osoan. Euskal Herrian, 2001eko otsailean agertu zen lehenengo kasua, Aezkoan (Nafarroa Garaia); bigarrena Azpeitian, hilabete geroago. Europako estatuen arteko susmoak **agerikoak**<sup>2</sup> ziren, eta mugak itxiko zirelako zurrumurruak entzuten ziren.

Zurrumurruak KORRIKArekin antolatzaileengana heldu ziren, baina inork ez zituen serio hartu. Apirilaren 1ean, ordea, KORRIKA Iparraldean zebilenean, bertako hedabide batek berria zabaldu zuen: Frantziako Gobernuak mugak itxiko zituen, bai ibilgailuei bai oinezkoiei.

Berriak kezka handia sortu zuen. Nola pasatuko ziren Hegoaldera KORRIKArekin autoak eta ehunka korrikalariak? Halere, antolatzaile guztiak ez zeuden urduri. **Izan ere**<sup>3</sup>, Iparraldekoek lasai-lasai **ziruditen**<sup>4</sup>. Nola ez! Apirilaren lehena, berria zabaldu zen eguna, egun berezia da Frantziako Estatu osoan, Ipar Euskal Herrian barne: *poisson d'avril*, Inozente eguna. Berria horixe baino ez zen: hedabide baten txantxa.

Hegoaldean sartzeko, KORRIKArekin ibilgailu eta parte-hartzaile guztiek alfonbra desinfektatzaile erraldoi baten gainetik zeharkatu behar izan zuten



Behobiako zubia. Dena den, lasterketak arazorik gabe igaro zuen muga, baita, egun batzuk geroago, Ibardin mendatekoa ere, berriro Iparraldean sartzeko. Edizio hura Baionan amaitu zen, apirilaren 8an.

1. **Ero**: loco, -a; *fou, folle*
2. **Ageriko**: visible; *évident*
3. **Izan ere**: de hecho; *en fait*
- 4: **Ziruditen**: parecían; *semblaient*

## KORRIKAKO ISTORIO BITXIAK

KORRIKAn istorio bitxi asko gertatu dira, edizio hauetan guztietan. Ondoren, haien berri jasoko dugu: benetan gertatutako bi eta gezurrezko bat. Irakurri zuri dagokizuna, kontatu ikaskideei eta entzun haiek kontatuko dizutena; gero, saia zaitez gezurrezkoa zein den asmatzen. Gogoan izan faltsua identifikatzeko ez dela beharrezkoa KORRIKA oso ondo ezagutzea; nahikoa da berriak arretaz irakurtzea edo entzutea.

## 2. ISTORIOA

### KORRIKA Xtrem

15. KORRIKA hasi zenean, alarma-egoeran zegoen Euskal Herri erdia, elurra **zela kausa**<sup>1</sup>. Edizio hura Karrantzatik abiatu zen, martxoaren 22an. Bigarren egunean, Arabako Errioxan, Urizaharreko mendatea zeharkatu behar zen, eta errepidea itxita zegoen ibilgailu guztientzat; baina antolatzaileek Arabako Aldundiak errepidea garbitzea espero zuten, eta lasai zeuden... arazo batez konturatu arte: mendatearen hegoaldeko kilometro batzuk ez daude Araban, Errioxan baizik.

Mendatera iristeko ordu gutxi falta zirenean, KORRIKAREN antolatzaileek abisua eman zioten Errioxako Diputazioari, eta KORRIKA Errioxako mugara heldu zenean, bidea garbi zegoen. Elurra kentzeko makina pasatu **berria**<sup>2</sup> zen. Araban berriro sartzean, ordea, errepidea elur azpian desagertu zen.

Kateak jarrita, KORRIKA animatzen duten autoak aurrera egiten saiatu ziren; baina gero eta elur gehiago zegoela ikusita, **gailurrera**<sup>3</sup> iristeko lau bat kilometro falta zirenean, atzera egin behar izan zuten. Baina KORRIKAK aurrera jarraitu zuen. Izan ere, korrikalari eta antolatzaile batzuek gorantz jarraitu zuten elur artean, ahal izan zuten moduan, eta lekukoa mendatearen bestalderaino eramatea lortu zuten.



Sei bat kilometro aurrerago, KORRIKAREN ibilgailuak berriro aurkitzean, lasaitu egin ziren antolatzaileak. Akabo arazoak! Gizajo eta gajoez ez zekiten, orduan, nolako **segada**<sup>4</sup> prestatzen ari zitzairen Ebro ibaia Castejón aldean. Baina hori beste istorio bat da...

1. **Dela kausa**: por causa de; à cause de
2. **Berri** (izond.): recién; récemment
3. **Gailur**: cima; sommet
4. **Segada**: trampa; piège



## KORRIKAKO ISTORIO BITXIAK

KORRIKAn istorio bitxi asko gertatu dira, edizio hauetan guztietan. Ondoren, haien berri jasoko dugu: benetan gertatutako bi eta gezurrezko bat. Irakurri zuri dagokizuna, kontatu ikaskideei eta entzun haiek kontatuko dizutena; gero, saia zaitetz gezurrezkoa zein den asmatzen. Gogoan izan faltsua identifikatzeko ez dela beharrezkoa KORRIKA oso ondo ezagutzea; nahikoa da berriak arretaz irakurtzea edo entzutea.

## 3. ISTORIOA

### Ordubeteko aurrerapena

1993an 8. KORRIKA egin zen, eta, urtetik urtera, lasterketak gero eta hobeto funtzionatzen zuen. Hobekuntza **nabarienetako**<sup>1</sup> bat, lehenengo edizioekin **alderatuta**<sup>2</sup>, puntualtasuna zen. Arduradunentzat garrantzitsua zen lasterketa ordutegi ofizialean **iragarritakoa**<sup>3</sup> baino beranduago ez iristea, parte-hartzaileak zain ez izateko; eta are garrantzitsuagoa zen behar baino goizago ez ailegatzea, lekukoa hartu behar zutenak beren lekuan ez egoteko arriskua zegoelako. Horretarako, KORRIKA irekitzen duen furgonetako kopilotuak, aldiro-aldiro, ordutegi ofiziala eta benetako ordua alderatzen zituen, lasterketa garaiz zihoala ziurtatzeko.

Martxoaren 29ko gau hartan ere horretan zebilen gidaria, adi-adi. Ordu gutxiren buruan Gasteizera iritsiko zen KORRIKA, eta garrantzitsua zen Arabako hiriburuan ahal den puntualen sartzea. Baina goizaldeko bostetan, alarma piztu zen: KORRIKA Lagranen zegoen, ordutegiaren arabera seiak eta hiruan egon behar zen lekuan! Ordubeteko aurrerapena zeramaten!

Berrogeita lau kilometroan ordubete atzeratu behar zen KORRIKA, bai ala bai; eta antolatzaileak, kezkatuta, neurriak hartu zituzten: erritmoa ahal beste **apaldu**<sup>4</sup> zuten; batzuetan, korrika atzerantz egiteko eskatzen zieten korrikalariei; errotondetan, bueltaka ibiltzen ziren... Baina planak ondo funtzionatu zuen, eta, Trebiñura heldu orduko, 50 minutu galduak zituzten.



Orduan, Arabako **arduraduna**<sup>5</sup> igo zen furgonetara, sutan, berandu zihoazela eta zertan zebiltzan tontakeriak egiten oihuka. Berandu? Nola "berandu"? Eta, bat-batean, okerraz ohartu ziren: gau hartan, martxoko ordu-aldaketa egin behar zen, eta erlojuak ordubete aurreratu behar ziren.

Pilak jarrita, erritmoa azkartu eta atzerapena ia ordu erdian txikitzea lortu zuten korrikalariek. Azkenean, kalteak gutxitu, eta 20 minutuko atzerapenez baino ez ziren iritsi Gasteizera. Hori bai, Trebiñutik Gasteizera arteko erreleboetan ibili zirenei ez zaie erraz ahaztuko edizio hartan eraman behar izan zuten **abiada**<sup>6</sup> zoroa.

1. **Nabari**: notorio, -a; *notoire*

2. **Alderatu**: konparatu

3. **Iragarri**: anunciar; *annoncer*

4. **Apaldu**: reducir; *réduire*

5. **Aduradun**: responsable; *responsable*

6. **Abiada**: velocidad; *vitesse*

**ETA KORRIKA LAGUNTZAILEA IZAN EZ BANINTZ?**

Aldizkariaren azken orrian lekukotasun bitxi bat irakurri dugu. Bertan, lagun batek KORRIKA laguntzaile izan aurretik eta izan ondoren zer gertatzen zitzaion kontatu du. Ariketa honetan, egoera bestela planteatuko dugu. Irakurri egoera, eta berridatzi esaldiak alegiazko baldintzan, adibidean bezala.

**A. KORRIKA LAGUNTZAILE IZATEA PROPOSATU DIDATE. LAGUNTZAILE EGINGO EZ BANINTZ, ZIURRENEZ,...**

1. Ez nuen lan bakarrean ere irauten.

*Ez nuke lan bakarrean ere iraungo.*

---


2. Nire lagunek beti izaten zuten zeregin saihestezinen bat, nirekin ez geratzeko.
- 
- 

3. Nire katuak, Pituk, leihotik ihes egin zidan.
- 

4. Arraintxoa ito egin zitzaidan.
- 

5. Ez nekien zer zen semaforo bat berde aurkitzea.
- 

6. Zure ustez, zer gehiago gerta lekizuke KORRIKA laguntzaile egingo ez bazina?
- 

**A. KORRIKA LAGUNTZAILE IZATEA PROPOSATU DIDATE. LAGUNTZAILE EGINGO BANINTZ, ZIURRENEZ,...**

7. Lanak perretxikoen antzera ateratzen zaizkit.
- 

8. Lagunak ezin dira ni gabe bizi.
- 

9. Telefonoz gestioaren bat egiteko orduan, langile gizatiar batek erantzuten dit, beti.
- 
- 

10. Infernua paradisu bilakatu zait.
- 

11. Zure ustez, zer gehiago gerta lekizuke KORRIKA laguntzaile egingo bazina?
- 
- 



## ERANTZUNAK

### KOHESIO ELEMENTUAK

Urte batzuk lehenago, 1977an, lehenengo kilometroak antolatu zen Beasainen, Gipuzkoako ikastolan aldeko ekimen handia; ez da zaila imajinatzea, **beraz** (1), afalondoko tertulian ekimen hari buruz hitz egingo zutela.

... eta ez da zaila imajinatzea afaltiarren bat, oinak lurretik hurbilen zituena, **ziurrenez** (2), "Hori ezinezkoa da, lagunak!" esaten

... baten batek "Ezetz antolatu!" hitz magikoak esan arte. Hortik aurrerakoa ere ez da zaila imajinatzea; **izan ere** (3), zerbait egitea nahi baduzu, horixe da modurik onena: esan euskaldun bati "Ezetz egin!", eta helburua lortuko duzu. Hutsezina da!

Hasierako edizioetan, Euskal Herriko alderdi politiko batzuek KORRIKARI boikot egitea eskatu zuten; **baina** (4), boikotaren gainera, KORRIKA egin zen, arrakasta handiz, **gainera** (5). Edizio batzuetan, debeku-mehatxuak egon dira: bigarren KORRIKAN, **esaterako** (6), Nafarroako gobernadore zibilak herrialdean ibiltzea debekatu zion lasterketari...

Hogeita bigarren edizioa 2021eko udaberrian antolatu nahi zuen AEK-k. Baina urtebete lehenago Wuhan urrunean sortutako birus batek, mundu osoa hankaz gora jarri zuen batek —COVID 19ak, **hain zuzen** (7)— ekimena bertan behera uztera behartu zuen.

**Hala ere** (8), urteetan boikot, mehatxu, elurte, uholde eta abarrek ez dute lortu KORRIKA geraraztea; beraz, nekez lortuko du zomorrotxo batek. **Hala** (9), egun gutxi barru KORRIKA egingo da, berriro ere, eta Euskal Herri osoa euskararen aldeko zoro zoragarritz beteko du.

### ETA KORRIKA LAGUNTZAILEA IZANGO EZ BANINTZ?

- A.**
1. Ez nuke lan bakarrean ere iraungo.
  2. Nire lagunak beti izango lukete zeregin saihestezinen bat, nirekin ez geratzeko.
  3. Nire katuak, Pituk, leihotik ihes egin lidake.
  4. Arraintxoia ito egingo litzaidake.
  5. Ez nuke jakingo (nekike) zer den semaforo bat berde aurkitzea.
- B.**
7. Lanak perretxikoen antzera aterako litzaidakidake.
  8. Lagunak ezin izango lirateke (ez litezke) ni gabe bizi.
  9. Telefonoz gestioaren bat egiteko orduan, langile gizatiar batek hartuko lidake, beti.
  10. Infernua paradisu bilakatuko litzaidake.



**aek**

# 22. korrika HITZEKIN

Amurriotik Donostiara 2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era



korrika.eus



**MARTXOAK 31 OSTEGUNA**

Amurrio	16:30
Arespalditza	17:19
Artziniega	18:15
Balmaseda	19:29
Zalla	20:18
Gueñes	21:02
Gordexola	21:36
Okondo	22:06
Laudio	22:38
Ugao	23:51

Gasteiz (Elorriagako Atea)	21:00
Arkaute	21:47
Dulantzi	22:18
Heredia	23:04
Agurain	23:49

**APIRIK 3, LARUNBATA**

Zalduondo	00:48
Egino	01:52
Olazti	02:34
Bakaiku	03:56
Ebarri	04:24
Lakuntza	05:09
Hiriberri	06:16
Urritzola	06:57
Ottobi	07:50
Berriozar	09:03
Iruñea	09:26
Antsoain	09:47
Iruñea	09:56
Burlata	10:10
Atarrabia	10:24
Uharte	10:33
Sarriguren	10:54
Iruñea	11:15
Barahain	13:43
Zizur Nagusia	14:09
Noain	15:06
Espartza	15:48
Astrain	16:39
Uterga	17:20
Gares	18:02
Mendigorria	18:49
Artaxoa	19:43
Tafalla	20:59
Larraga	23:02

**APIRIK 4, ASTELEHENA**

Irunberri	00:39
Domeñu	01:18
Nabaskoitze	03:07
Burgi	04:45
Erronkari	05:58
Izaba	06:37
Uztarrotze	07:10
Itzaltzu	08:47
Otsagabia	09:07
Ekzarotze	09:20
Abaurregaina	10:45
Abaurrepea	11:08
Garralda	12:18
Aurizberri	13:10
Orreaga	14:02
Luzaide	15:45
D. Garazi	17:00
Lakarra	17:42
Lartabale	18:41
Donaixti	19:25
Muskildi	20:30
Maule	21:28
Xarrrikotapea	22:27

**APIRIK 3, IGANDEA**

Lerin	00:34
Lodosa	02:40
Andosilla	04:22

San Adrian	04:48
Azagra	05:14
Cadreta	07:29
Corella	09:42
Cintruenigo	10:19
Tutera	11:45
Alesbes	15:44
Martzilla	16:38
Kaparrotsu	17:29
Zarrakaztelu	19:30
Kaseda	21:53
Gabarderal	22:35
Zangoza	23:01
Ledeia	23:40

**APIRIK 5, ASTEARTEA**

Donapaleu	00:00
Iholdi	02:04
Ortzaize	03:11
Baigorri	03:52
Erratzu	05:55
Arizkun	06:15
Elizondo	06:47
Ziga	07:36
Berroeta	08:02
Almandoz	08:21
Arraitz	10:05
Larrainzar	10:44
Jauntsarats	11:49
Aldatz	12:48
Mugiro	13:21
Lekunberri	13:34
Iruztzun	15:29
Azantza	17:24
Genbe	18:39
Muetz	19:18
Lizarra	20:56
Iratxe	21:41
Murieta	22:45
Antzin	23:05
Acedo	23:44

**APIRIK 6, ASTEZKENA**

Kanpezu	00:40
Genevilla	01:15
Marañon	01:47
Bernedo	02:21
Baxauri	03:12

**APIRIK 7, OSTEGUNA**

Sestao	01:07
Trapagaran	01:31
Ortuella	02:00
Abanto	02:38
Muskiz	03:22
Zierbena	04:15
Santurtzi	04:52
Portugalete	05:29
Getxo-Romo	06:24
Leioa	07:06
Getxo-Algorta	07:26
Berango	08:19
Sopela	08:37
Urduliz	08:58
Gorliz	09:41
Gatika	10:42
Mungia	11:05
Bakio	12:21
Bermeo	13:23
Mundaka	14:20
Busturia	14:53
Gernika	15:38
Arteaga	16:35

**APIRIK 8, OSTIRALA**

Deba	00:01
Zestoa	01:30
Zumaia	02:58
Getaria	03:55
Zarautz	04:26
Orio	05:21
Usurbil	06:26
Lasarte	07:11
Urmieta	08:13
Andoain	08:43
Billabona	09:55
Tolosa	10:40
Bidania	11:51
Errezil	12:23
Azpeitia	13:26
Azkoitia	14:07
Urretxu	15:49
Zumarraga	16:08
Ormaiztegi	17:00
Segura	17:46
Idiazabal	18:18
Lazkao	19:10
Beasain	19:36
Ordizia	20:09
Legorreta	21:01
Altzo	21:59
Tolosa	22:25
Ibarra	22:45
Berastegi	23:43

**APIRIK 9, LARUNBATA**

Leizua	00:35
Ezkurra	01:53
Zubieta	02:54
Doneztebe	03:40
Sunbilla	04:06
Igantzi	05:07
Lesaka	05:40
Bera	06:17
Urruna	07:11
Azkaine	07:44
Senpere	08:23
Sara	09:34
Zugarramurdi	10:40
Ainhoa	11:21
Erzeleta	11:54
Itsasu	12:27
Kanbo	12:51
Hazparne	13:46
Haltsu	15:21
Uztaritze	15:48
Milafanga	16:33
Hiriburu	16:59
Baiona	17:28
Angelu	19:43
Biarritz	20:16
Bidarte	21:34
Getari	22:07
D. Lohitzune	22:20
Ziburu	23:10
Urruna	23:41

**APIRIK 10, IGANDEA**

Hendaia	00:14
Irun	00:53
Hondarribia	01:39
Irun	02:21
Oiartzun	03:09
Orereta	03:44
Lezo	04:03
Pasaia	04:32
Astigarraga	06:19
Hernani	06:49
Donostia (Anorga)	07:36
Donostia (Parte zaharra)	09:05
Donostia (Amaiera)	12:30

## 22. KORRIKAREN ibilbidea